

LANKIDETZA HITZARMENA  
BIARRITZEKO HERRIKO ETXEA – BIARRITZ OLYMPIQUE PAYS BASQUE

CONVENTION DE PREFIGURATION  
MAIRIE DE BIARRITZ – BIARRITZ OLYMPIQUE PAYS BASQUE

**HITZARMENAREN IZENPETZAILAK**

• **Biarritz Olympique Pays Basque**, Agilera kiroldegia – Cino del Duca karrika – 64200 Biarritz, Nicolas Brusque lehendakari jaunak ordezkaturik,

eta

• **Biarritzeko Herriko Etxea**, Eduardo VII.a etorbidea, 12, BP 58 64202 BIARRITZ CEDEX, Michel VEUNAC auzapez jaunak ordezkaturik.

**SAR HITZA**

Lurraldearen ikuspegi bera dutela oharturik eta euskararen eta euskal kulturaren ospean parte hartzeko nahia partekatzen dutela jabeturik, Biarritz Olympique Pays Basque klubak eta Biarritzeko Herriko Etxeak lankidetzaren hitzarmen bat izenpetzeko eta beren arteko elkarlana kontratu bidez gauzatzeko xedea dute.

Biarritz Olympique Pays Basque (BOPB) gure hiriko eragile nagusi bat da. Biarriztarren bizian leku garrantzitsua du. Klubaren irudiak ipar Euskal Herrian, hego Euskal Herrian eta Frantzia distiraten du. Badu zenbait urte euskal talde gisa agertzen dela, eta, gaur egun, hori bistakoa da. Hala ere, gaur, klubean, euskara ez da kasik batere erabiltzen.

Badu 25 urte Biarritzeko Herriko Etxeak euskararen berreskuratze prozesu bat abiatu duela, eta, horretarako, belaunaldi gazteak izan ditu jomuga. Egun, Biarritzen, lau ikasle bat euskara ikasten ari da eta herritarren artean hizkuntza sustatzeko adostasun zabala dago.

**CONVENTION CONCLUE ENTRE**

• **Biarritz Olympique Pays Basque**, Stade Aguiléra – Rue Cino del Duca – 64200 Biarritz, représentée par M. Nicolas Brusque Président,

et

• **La Ville de Biarritz**, 12 avenue Edouard VII, BP 58 64202 BIARRITZ CEDEX, représentée par M. Michel VEUNAC, Maire.

**PREAMBULE**

Conscients de partager une vision commune du territoire et notamment la volonté de contribuer au rayonnement de la langue et de la culture basque, le Biarritz Olympique Pays Basque (BOPB) et la Mairie de Biarritz souhaitent contractualiser leur collaboration dans le cadre d'une convention de préfiguration.

Le Biarritz olympique Pays Basque est un opérateur majeur de la ville et occupe une place importante dans la vie des biarrots. L'image du club rayonne largement à l'échelle locale, mais également transfrontalière et hexagonale. Depuis plusieurs années maintenant son positionnement en tant que club basque est évident. Pour autant, la langue basque y est quasi-inexistante à ce jour.

La Ville de Biarritz, est engagée depuis 25 ans dans un processus de réappropriation de la langue basque qui passe essentiellement par les nouvelles générations. Aujourd'hui, près d'un élève sur quatre apprend le basque à Biarritz et la promotion de la langue basque fait désormais l'objet d'un consensus fort auprès de nos concitoyens.



## TESTUINGURUA

2004an, BOPBk euskarari eta euskal kulturari buruzko neurriak gauzatzeko engaiamendua hartu zuen. Orduan, Euskal Kultur Erakundearekin (EKE) eta Euskaltzaindia erakundearekin hitzarmena izenpetu zuen. Laguntza iraunkorrik izan ez zuenez, engaiamendu horiek parte ttipiz baizik ez zituen bete.

2015ean, Biarritzeko Herriko Etxeak euskara zerbitzua sortu zuen. Hiriko eragile desberdinek euskara erabiltzeko nahikeria agertzen dutelarik, horiek laguntzeko ardura du, bereziki. Itzulpenak egiten ditu, aholkuak ematen ditu, eragile desberdinen arteko harremanak errazten ditu eta formakuntzak eskaintzen ditu. Urririkako zerbitzu publikoa da, erreaktiboa eta gaitua.

Gaur egun, euskara nortasun eta kultur markagarri azkarra da. Lurraldeko eragileentzat (enpresa, saltegi, botere publiko...), erronka estrategikoa da.

Klubarentzat, erroztatze eta garapen faktorea da ere. Hortaz, BOPBren munduan, barnera zein kanpora begira, euskara manera harmoniatsuan eta koherentean integratzea abantaila handia da.

\* \* \*  
\* \*  
\*

Hitzarmen honek lan baten lehen urratsen nondik norakoak zehazten ditu, honako helburuekin:

- Denboraldi hau bukatu orduko, BOPBn euskara progresiboki sartzea.
- Hurrengo denboraldian hitzarmen zehatzago bat izenpetzeko, eragile desberdinak (herriko beste zerbitzuak, eragile publikoak) bilduko dituen lan bat abiatzea.

### 1. ARTIKULUA: Aldeen engaiamenduak

Funtsezko 3 printzipio segitzeko xedearekin, BOPBk eta Biarritzeko Herriko Etxeak elkarlan bat burutuko dute:

- 1) Denei euskara ikusteko – entzuteko – erabiltzeko bidea ematea.
- 2) Gauzatzeko mailakatu eta progresibo bat zehaztea.
- 3) Diskriminaziorik gabeko hizkuntza tratamendu orekatu bat onartzea eta aplikatzea.

## CONTEXTE

En 2004, le BOPB s'était engagé dans la mise en œuvre de mesures en direction de la langue et de la culture basque. Une convention avait été signée avec l'Institut Culturel Basque (ICB) et l'académie de la langue basque (Euskaltzaindia). Faute d'accompagnement pérenne, ces engagements n'ont été que très partiellement tenus.

En 2015, la Ville de Biarritz s'est dotée d'un service municipal de la langue basque. Il est notamment chargé d'accompagner les opérateurs de la ville dans leur volonté d'usage de l'euskara. Il intervient sur les traductions, conseils, mise en relation et formation, en dispensant un service public gratuit, réactif et certifié.

De nos jours, la langue basque est un marqueur culturel et identitaire fort et représente un enjeu stratégique pour les acteurs du territoire (entreprises, commerces, pouvoirs publics...).

C'est également un facteur d'ancrage et de développement pour le club. Une intégration harmonieuse et cohérente de la langue basque dans l'univers du BOPB représente donc un atout fort en interne comme à l'externe.

\* \* \*  
\* \*  
\*

La présente convention définit les contours d'un travail préliminaire, visant :

- L'intégration progressive de la langue basque au sein du BOPB, dès cette fin de saison.
- L'amorce d'un travail réunissant les différents acteurs (autres services municipaux, opérateurs publics), en vue d'une convention plus détaillée pour la saison prochaine.

### ARTICLE 1 : Engagements des parties

Le BOPB et la Ville de Biarritz mèneront un travail en commun visant à répondre à 3 principes essentiels :

- 1) Permettre à tous de voir – entendre – pratiquer la langue basque.
- 2) Définir une mise en œuvre échelonnée et progressive.
- 3) Adopter un traitement linguistique équilibré et indiscriminé.



**BIARRITZ OLYMPIQUE PAYS BASQUE KLUBAK  
HONAKO ENGAIAMENDUAK HARTZEN DITU:**

**A) SEINALETIKA**

1. Agilerako bulego administratiboetan, **sinaletika elebiduna** plantan ezartzea.

**B) KOMUNIKAZIOA**

2. **Komunikazio euskarrietan** euskara sartzea (afixak, esku orriak, klubaren kazeta...).

3. **Euskarri numerikoetan** euskara sartzen hastea.

- Webgunea: eduki finkoen eta atal izenen itzulpena.

- Sare sozialak: erabilpen progresiboa (Facebook-Twitter-Instagram).

4. Partida estrategikoetan **hizlariaren laguntzea** (derbiak, denboraldi hastapeneko eta bukaerako partidak, gala partidak...).

**C) PRENTSA**

5. **Prentsa txosten eta ohar** batzuen euskaratzea.

**D) FORMAKUNTZA ETA ERABILPENA**

6. Boluntario diren klubeko langile eta jokalarientzat **euskarako lehen irakaspenak** (30 ordu). Euskara zerbitzuko misio kargudunak kudeatuko du iniazioa, parte hartzaileen erdia guttienez Biarritzeko Herriko Etxeko agente permanentez osatua (2018ko lehen urte erdian).

**E) PRESTIGIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA**

7. Animazio politikaren baitan, **euskal kulturaren alderdi onak erakustea**.

- Taldeak programatzea (musika, dantza...).

- Partidetan euskal musika hedatzea.

**BIARRITZEKO HERRIKO ETXEAK HONAKO  
ENGAIAMENDUAK HARTZEN DITU:**

Euskara zerbitzuak BOPBri sostengu teknikoa ekarriko dio. Hala, ekintzen zehazte eta gauzatze lanetan kluba lagunduko du.

**1. HIZKUNTZA MAILAKO LAGUNTZA  
EKARTZEA**

Usaiako itzulpenak (urteko 10 000 hitz gehienez), zuzenketak, bat-bateko itzulpen zerbitzuak eta partida estrategikoetan hizlariaren laguntza segurtatuko ditu.

Elebitasun orekatuari eta aterabide tekniko ezberdinei buruzko aholkularitza eginkizuna izanen du ere.

**LE BIARRITZ OLYMPIQUE PAYS BASQUE  
S'ENGAGE A :**

**A) SIGNALETIQUE**

1. Mise en place d'une **signalétique bilingue** dans nos bureaux administratifs.

**B) COMMUNICATION**

2. Insertion de la langue basque sur les **supports de communication** (affiches, dépliants, journal...).

3. Intégration de la langue basque sur les **supports numériques**.

- Site web : traduction des contenus fixes, des noms de rubriques.

- Réseaux sociaux : usage progressif (Facebook-Twitter-Instagram).

4. **Accompagnement du speaker** sur les matchs stratégiques (Derby, début et fin de saison, match de gala...)

**C) PRESSE**

5. Traduction de certains **communiqués de presse**.

**D) FORMATION & USAGE**

6. **Initiation de 30h à la langue basque** pour les agents et les joueurs volontaires. Elle sera dispensée par le chargé de mission du Service langue basque, dans le cadre d'un groupe interne composé au minimum de 50% d'agents permanents de la ville (au cours du 1<sup>er</sup> semestre 2018).

**E) PRESTIGE & SENSIBILISATION**

7. Dans le cadre de sa politique d'animation, **mise en valeur de la culture basque**.

- Programmation de groupes (musique, danse...).

- Diffusion de musique basque lors des matchs.

**LA VILLE DE BIARRITZ  
S'ENGAGE A :**

Le service langue basque se positionnera en appui technique en accompagnant le BOPB dans la définition et la mise en œuvre de ces actions.

**1. APPORTER UNE ASSISTANCE  
LINGUISTIQUE**

Elle assurera les traductions courantes (dans la limite de 10.000 mots/an), les corrections, les prestations de traductions simultanées et l'accompagnement exceptionnel du speaker sur les matchs stratégiques. Elle jouera également un rôle de conseil sur le bilinguisme équilibré et les différentes solutions techniques.



## 2. EUSKARAKO LEHEN IRAKASPENAK ESKAINTZEA

Boluntario diren klubeko langile eta jokalariak herriko euskara iniazio taldean integratzea proposatuko du, toki libreen eta lehentasunezko profilen arabera.

## 3. TOKIKO KULTUR ERAGILEEKIN HARREMANETAN JARTZEA

Klubari kultur arloko tokiko zerbitzu hornitzaileen eta artisten kontaktuak emanen dizkio.

## 4. 2018-2020ko HITZARMENARI BEGIRAKO LAN TALDE BAT ANIMATZEA

Hurrengo denboraldian lan sakonago bat burutzeko, eragile desberdinak bilduko ditu (hiriko zerbitzuak, Euskararen erakunde publikoa, Euskal kultur erakundea...).

### 2. ARTIKULUA: Epeak

Hitzarmen honek, izenpetze egunetik aitzina, 6 hilabeteko balioa izango du.

Epe horren ondotik, pasatako denboraldiari buruzko gogoeta egiteko eta hurrengo urteetarako hitzarmen berri bat izenpetzea aurreikusteko, azterketa bilkura bat antolatuko da.

### 3. ARTIKULUA: Baliogabetzea

BOPB klubak bere betebeharrak errespetatzen ez baditu eta horren zuzentzeko eskaera 15 egunez ondoriorik gabekoa bada, Biarritzeko Herriko Etxeak hartu engaiamenduak ezeztatzeko eskubidea du.

### 4. ARTIKULUA: Auziak

Kontratu honen ulertzeari edo aplikazioari buruzko eztabaida izanez gero, bi aldeek, adostasunik lortu ezean, Paueko auzitegi administratiboak afera trenkatzea adosten dute.

## 2. PROPOSER UNE INITIATION A LA LANGUE BASQUE

Elle proposera d'intégrer les personnes volontaires dans les groupes municipaux d'initiation à la langue basque, en fonction des places disponibles et des profils prioritaires.

## 3. METTRE EN RELATION AVEC LES ACTEURS CULTURELS LOCAUX

Elle fournira au club les contacts d'artistes et prestataires culturels locaux.

## 4. ANIMER UN GROUPE DE TRAVAIL EN VUE DE LA CONVENTION DE 2018-2020

Elle réunira les différents acteurs en vue d'un travail plus approfondi lors de la prochaine saison (Services municipaux, Office public de la langue basque, Institut culturel basque...).

### ARTICLE 2 : Délais

La présente convention aura une durée de validité de 6 mois à partir de sa date de signature.

À l'issue de ce délai, une réunion de bilan sera organisée pour mener une réflexion sur la période écoulée et envisager la signature d'une nouvelle convention pour les années à venir.

### ARTICLE 3 : Résiliation

La Ville se réserve le droit de remettre en cause ses engagements, en cas de non-respect de ses obligations par le club, après mise en demeure restée 15 jours infructueuse.

### ARTICLE 4 : Litiges

En cas de litige sur l'interprétation ou l'application du présent contrat, les parties conviennent de s'en remettre, à défaut d'accord amiable, à l'appréciation du tribunal administratif de Pau.

BIARRITZ, 2018ko uztarriaren 31a

**Michel VEUNAC**



Maire de Biarritz  
Biarritzeko auzapeza

BIARRITZ, le 31/01/2018

**Nicolas BRUSQUE**



Président du BOPB  
BOPBko lehendakaria